

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

berria^{info}

Igandea, 2012ko abenduaren 2a
Testuak: Iñaki Lasa

03 Euskara elkarteak Etorkizunari begira
04 Internet Euskara sarean
07 Elkarrizketa Patxi Martinez de Marigorta

**Euskara
egunero
delako**



**EUSKARAZ
bizitz
nahi dugu**

Euskara lanaren bitartez ikasten

Lanean Euskaraz egitasmoa bultzatu du Banaiz Bagara elkarteak, jatorri elkarrekin, jatorri elkarrekin, jatorri elkarrekin...

Lanean bitartez euskara ikasteko helburuz, Lana Euskaraz egitasmoa jarri du abian bigarren aldiz Banaiz Bagara elkarteak. Euskara ezagutzariki ez zuten jatorri ezberdineko zortzi lagunek, lanerako hizkuntza tresnak ikasi, eta hilabete batez praktikan jartzeko aukera izango dute.

23 eta 58 urte arteko lau emakume eta lau gizonen osatzen dute egitasmoa. Jatorri ezberdinekoak dira: Gipuzkoakoak, Burgoskoak (Espainia), Kolonbiakoak, Marokokoak, Argentinakoak eta Ekuadorkoak. Guztiak langabezian zeuden, eta horietako gehienek ez zekiten euskaraz; besteek oso maila apala zeukaten. Praktikek irauten duten bitartean, dinamizazioa baten laguntza izango dute. Hura ere langabezian zegoen. Euskarazko egoeretan murgilduko dira zortzi partaideak, bezeroekin hartu-emanak eduki eta lanaren antolamendua euskaraz antolatuta. Lan praktikak ordainduak dira.

Iaz, *Salmenta Euskaraz* izena hartu zuen egitasmoak. Azoketan, plazetan eta kultur ekitaldietan salmenta mahaiak jarri eta euskararekin loturiko elkarrekin produktuak saltzen zizuten proiektuan lanean ari ziren



Lanean Euskaraz egitasmoaren aurkezpen ekitaldia. GFA

hiritarrak: Pirritx Porrotz eta Marimototsen pampinak, kamisetak, jostailuak, BERRIAREN liburuak, Kontseiluaren kamisetak eta antzeko produktuak.

Egitasmoari izena aldatu dio aurten Banaiz Bagara elkarteak: *Lana Euskaraz* izena hartu du orain. Proiektuaren arduradunen esanetan, «ez da kasualitate» izena moldatu izana, egitasmoaren helburua ez baita soilik zortzi laguni euskara lanean ikasteko aukera ematea, baizik eta «lan munduan euskararen normalizaziorako bide berriak bilatzea».

«Enpresekiko elkarlana»

Banaiz Bagara elkarteak, proiektua aurrera ateratzeko, BERRIA, Katxiporteta, Elkar eta Kontseiluaren laguntza izan du, baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta

Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza ere. Banaiz Bagarako Petra Elserrek elkarte horien laguntza eskertu du: «Proiektu honen bidez eta enpresa, elkarte eta erakunde kolaboratzaileekin batera, euskara lanaren bitartez ikasteko eta erabiltzeko aukera gehiago sortu nahi ditugu, proiektu honetatik abiatuz, formatu hau beste sektoreetara zabalduz. Horregatik, oso garrantzitsua da enpresekiko elkarlana».

Lanean Euskaraz egitasmoak hilabete honetan izango duen oihartzunaz harago, euskalgingtaren, enpresen eta erakundearen arteko sarea osatzea «funtsezkoa» dela adierazi du Elserrek, «lana eta euskara sektore guztietan txertatzeko, profil guztietako langileak egotea posible izateko eta euskara guztientzat balio erantsia izateko».

Euskara gazteen artean sustatzeko Ika-mizka

Pertsona ezagunak eta gazteak euskaraz hizketan jarriko dituzte 'Gaztezulo'-k, EHUk eta Gipuzkoako Foru Aldundiak

Eta hik nola bizi dink euskara?». Galdera horretatik abiatuta eta Euskararen Nazioarteko Egunaren harira antolatu dute Ika-mizka egitasmoa *Gaztezulo*-k, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean. *Ika-mika* eta *zizka-mizka* hitzen arteko jolasetik dator *Ika-mizka* izena; izan ere, Euskal Herrian «mahaiaren inguruan eta jateko-az lagunduta konpontzen dira kontu garrantzitsuak», antolatzaileen esanetan. Egitasmoaren helburua gazteen artean euskararen behararen inguruko kontzientziazioa piztea eta erabilera sustatzea da.

Horretarako, Euskal Herriko esparru anitzetako jende ezaguna mahai batean berriketan ageri den hainbat bideo sareratu dituzte. Parte hartzaileen zerrenda luzea da. Besteak beste, ageri dira Mikel Astarloza txirrindularia, Oihana Kortazar korrikalaria, Karlos Zurutuza eta Naroa Iturri kazetariak, Alaia Martin eta Aitor Sarriegi bertsolariak, Andoni Agirregomezkorta aktorea, Itxaso Martin idazlea eta Ines Osinaga eta Koldo Soret musikariak.

Ika-mizkak mezu argia zabaldu du: «Ei, gazte! Miresten dituzun horiek, euskara maitatzetik harago, euskaraz bizi dira. Zu

zergatik ez?». Izan ere, gazteak dira euskararen etorkizuna, eta hura bermatzeko hizkuntza ezagutzea bezain garrantzitsua da erabiltzea. Gazteen artean horri buruzko sentsibilizazioa errotu gabe dagoela uste dute egitasmoaren bultzatzaileek. Haien aburuz, nerabe zein gazteei mezu bat helarazteko, mezu inperatiboak erabiltzea baino «eragin korragoa» da miresten dutenen ahotsa entzutea.

Bihar, mahai inguruak

Pertsona ezagunen bideoak sarean zabaltzea izan zen Ika-mizkaren lehenengo fasea. Bigarrena bihar egingo da, Euskararen Nazioarteko Egunean. Mahai inguruak egingo dituzte EHUko Gipuzkoako campuseko Carlos Santamaria zentroan. Izena eman duten gazteek bideoetan jardun diren pertsonekin hitz egiteko aukera izango dute.

Euskaraterapia gisa definitu dute antolatzaileek mahai inguruak. «Gazteen artean euskaraz bizitzeko hautua sustatze aldera mamituko ekimena da, eta euskaldunok gure hizkuntzari arnasa emateko ahaleginean ditugun gorabeherak mahai gainean jarri eta jende gehiagorekin elkarbanatzea da helburua».

Ordu eta laurdeneko bi txanda egongo dira, biak Jon Artanok dinamizatuak. Hamar mahai jarriko dituzte, eta bakoitzean bi pertsona ezagun eta bost gazte egongo dira. Gazteak mahai aldutzen joango dira, guztiak pertsona denekin hitz egin dezaten. Amaikutakoan, Zuloak taldeak zuzeneko emanaldia emango du, 13:00etan.



Euskaraz blai Hernanin



Herritarrengan nola eragin

Euskara elkarteak bidegurutzean dira 30 urteko lan emankorraren ondoren; egindakoaz pozik dira, baina ez dute asmatu herritarrengan behar beste eragiten. Hor dute etorkizuneko gakoa.

Zertarako nahi dugu euskaraz jakitea, bizitzeko ez bada? Jakiteko nahi dugu euskara, ala bizitzeko behar dugu? Bigarren horrek huts egin digu. Jasone Mendizabal Topaguneko zuzendariak egin du hausnarketa, eta bat dator hainbat euskara elkarte biltzen dituen federazioak aurreko astean egindako kongresuko balorazioarekin: badago jakintza, aurrerapausoak eman dira hor, baina herritarrek ez dute espero zitekeen bezainbeste erabiltzen euskara. Erroka berriei aurre egiteko, euskalgintzan «ziklo berri bat» ireki beharraz hitz egin dute. «Argidago orain arte egin dugun lanarekin asko lor-tu dugula baina ez dela nahikoa inondik inora».

Hiru urteko barne hausnarketa prozesua burutu berri du Topagunekoak, eta iritsi diren ondorioen berri eman dute euskara elkarteek. Agortutzat jo dute orain arte 30 urtez egindako bidea. Garaiak aldatu dira, jada arazo nagusia ez da euskararen jakintza falta. Pauso garrantzitsuak eman dira alor horretan, eta euskalduntze prozesuak arrakasta eduki du. Hezkuntza sistemaren eta euskaltegien eskutik lorpen ugari egon dira ezagutza aldetik. Azken urteetan, baina, erabilera ez atzera ez aurrera dago.

Azken inkesta soziolinguistikoetako datuei so eginez gero, erabilerak ez duela aurrera egin antzeman daiteke, eta hori da euskara elkarten kezka nagusia. Egoera irauli beharraz mintzatu da Mendizabal: «Euskararen erabilera muga batera iritsi da, eta muga hori ez da nahikoa; egungo egoeran geratzen bada, honek atzerako bidea besterik

ezin du hartu. Joera aldatu beharra daukagu». Hara hor elkarteek etorkizunera begira duten erroka nagusia. Gasteizko Geu elkarte Eñaut Iraeta eta Durangoko Berbaro elkarte Lehior Eloorriaga iritzi berekoak dira. Biek ala biek aipatu dute jakintzaren eta praktikaren arteko jauzia murriztea dela ordezkatzeko duten taldeen egungo behar nagusia.

Horregatik, hausnarketa prozesutik «indarberrituta» atera ondoren, «euskalgintza berri bat» eratzearen alde agertu da Topagunea, etorkizunari bultzada bat emateko. Alde batetik, pertsonaren esparruan, «hiztun kualifikatu gehiago» sortu behar direla uste du Mendizabalek, euskalgintza hori kuantitatiboki eta kualitatiboki zabaldu dadin.

Antolakuntzaren eremuan, Euskal Herrian euskararen inguruan dagoen «erakundetze ikaragarria» nabarmendu du, eta orain arte lortutakoa gorai-patu. Baina beste behin ere urrats gehiago egin beharraz ohartarazi du: «Honaino heldu gara. Estrategia berrikusi behar dugu, epe luzearako plan berri bat landu; denon artean adostu beharko dugu eskema berri bat». Hala, 30 urte hauetan ikasitako guztia «berriro lapikoan sartu» eta «artikulazio askoz bateratu» eta adostuago baten bueltara «plangintza berri bat martxan jaritzaren alde agertu da.

Hastear den aro berrira begira, euskaltzale guztiek lekua dutela azpimarratu du Mendizabalek: «Baten gaituena euskararen alde egin nahi dugun lana da». Euskara elkarteek hasieratik filosofia hori eduki dute, baina Topaguneko zuzendariak iritzio dio «zoritzarrez» eremu politikoa ez dela euskararen inguruan



Topagunekoak aurreko astean eginiko II. Kongresuaren irudi bat. LUIS JAUREGALITZO / ARGAKZI PRESS

halako batasunik lortu. Alderdien arteko desadostasunek euskalgintzari kalte egin diotela eta nolabait gizarte eragileak «lubakian» egon direla uste du. Horregatik, «espazio hori ezinbestean moldatu beharra» dagoela adierazi du. Dena den, kezka bat plazaratu du Mendizabalek. Azkenaldian, «inposizioaren izenean edo», euskararen kontrako mezuak berriro entzuten hasi direla salatu du: «Argi ez bagaude, hori barnatzen joango da, eta itzeleko kaltea egin dezake».

Murrizketen eragina

Euskara elkarteak, bestetik, egungo testuinguruaren gatibu dira. Ez dute krisi ekonomikoaren murrizketetatik ihes egiterik eduki. Nafarroako egoera urrutitik dator, jada ez baita albiste Nafarroako Gobernuak euskararen inguruan duen jarrera ezkor eta itxia. Krisiaren aitzakian, euska-

razko hedabideetako diru laguntza desagertu egin da. Murrizketak egotea ulertzen badu ere, eba-kitze horien «proportzioa» salatu du Mendizabalek.

Arabatik etorri da azken albiste gogorra. Arabako Foru Aldundiak %50eko murrizketak iragarri ditu 2013rako aurrekontuan, eta herrialdeko kuadriletan jarritako euskara teknikari guztiak kenduko dituzte. «Oso larritzat» jo du Mendizabalek erabakia. «Lurralde osoan» eragina izango duen erabakia dela nabarmendu du, berriz, Iraetak, nahiz eta oraindik bakarrik proposamena den eta ikusteko dagoen aurrekontua onartzen duten.



Testuinguru horren aurrean, elkarteek «egitasmoekin lanean» jarraitu behar dutela adierazi du Iraetak. Haren aburuz, beharrezkoa da «ahalik eta babes gehien lortzea», ez erakundeentz aldetik soilik, baita bazkideen

aldetik ere. Euskara elkarteek garatzen dituzten proiektuak benetan garrantzitsuak direla erakutsi behar dutela uste du.

Gainontzeko erakundeek aurrekontuei eusteko saioa agertu badute ere, «lehenagotik ere beherapenak» bazeudela uste du Topaguneko zuzendariak, eta hainbat proiektutarako «nahikotasunik» ez dagoela.

Euskararen Nazioarteko Egunaren gertutasunaren harira, Iraetak eta Eloorriagak hausnarketa bera egin dute. Euskarak 365 egun ditu, «egunero» da euskararen eguna. Egunerokotasunaren «aldarri» behar duela adierazi du lehenak, eta Berbaro elkarteak bigarren aurrera eramango duen *Euskarak 365 egun* kanpaina nabarmendu du besteak. Dena den, Euskararen Eguna gaur egun «oraindik» beharrezkotzat jo du, euskara «ikusgarri» egin ahal izateko.

Amaran euskara ikasi

-  MAILA GUZTIAK
-  MODULU BEREZIAK
-  PERFILAK (IVAP-OSAKIDETZA-IRALE)
-  EUSKARA INTERNETEN BIDEZ (BOGA)
-  HABEren TITULU OFIZIALAK



Urrats
euskaltegia

Euskara, jalgi hadi sarera

Interneten gero eta presentzia handiagoa du euskarak. 2012. urtea ona izan da horretan. Twitter sare soziala euskaratu dute eta '.eus' domeinua lortzeko pauso gehiago eman dira. Eusko Ikaskuntzak, berriz, Google erakundeak bihar euskal 'doodle'-a jartzeko egitasmoa bultzatu du.

Hamaika plaza daude Euskal Herrian. Orotarikoak. Herri-tarrak biltzeko eta euskara transmititzeko leiho izan dira urte luzez. Frankismoaren arorik beltzen ere, euskara etxeko txokorik ilunenera baztertzeko saiatu zirenean, tinko eutsi zuten plazek, debeku guztien gainetik. Euskal Herrian plaza ez da enparantza soil bat, badu bizia, eta izan daiteke areto bat, edo kultur etxe bat, eus-

erakundeko kideak azaldu duenez. Horregatik saiatu dira azken urteetan sare sozialen eta webgurearen bitartez hedatzen. Iberba euskara zerbitzuarekin eta HABErekin elkarlanean, euskarak Interneten bere lekua izan dezan ari dira lanean. Hortik etorri da euskal *doodle*-a egiteko ideia.

Eusko Ikaskuntza Googlearekin

harremanetan jarri eta duten asmoen berri eman ostean, urriaren 30ean hasi ziren atxikimenduak jasotzen. Atzo arte bildu zituzten sinadurak, eta gaur bidali diote guztien izena AEBetako erakundeari.

Erantzun bikaina izan du egitasmoak, eta 30.000 sinaduren lan-ga aise gairitu dute. Dena den, bihar arte ez du inork jakingo euskal *doodle*-ik egongo den ala ez. Googlek, errezero handiz, sekretupean eusten dio informazio hori, eta ez da inoiz filtraziorik egoten.

Horretaz gain, ikurra estatuan, Europa osoan edo nazioartean jar daiteke. Azken hori lortzea da Eusko Ikaskuntzaren asmoa. Bi diseinatzailek egindako proposamen bana helarazi dute Googleraren baina Gazeok ez daki erakunde erraldoiak proposa-

men horiek onartuko dituen, edo bestelako bat egingo duen.

Egitasmoak jaso duen babesa eskertzeko, HABEren 2013ko agendak eta egutegiak zozkatuko dituzte atxikimendua eman duten guztien artean.

Eusko Ikaskuntzak 1949an bultzatu zuen lehenengo Euskararen Nazioarteko Eguna. Frantzisko Xabierkoaren eguna, abenduaren 3a, aukeratu zuten euskararen eguna izateko. Izan ere, azken hutsa eman aurreko hitzak euskaraz esan ei zituen santu nafarrak. Azken urteetan «ospakizunari beste bultzada bat» ematea erabaki zuten, eta ekimen ugari prestatu izan dituzte euskal hizkuntzaren gogoa «berpizteko». 2006az geroztik, ENE saria banatzen du Eusko Ikaskuntzak: euskara sustatzeko lanetan gehien nabarmendu den Euskal Herriko kanpoko erakundeari ematen diote.

Doodle-aren kontua euskarak aurreten Interneten eman dituen pausoetako azkena baino ez da. Abuztutik Twitter sare soziala euskaraz erabili daiteke, urtebete baino gehia-

kaltegi bat, belodromo bat... Edo zerbait abstraktuagoa. Aldatuz doaz garaiak, eta erabat digitalizatutako XXI. mende honetan, bada aurrekoen gainetik jendea biltzeko gaitasuna duen plaza bat: ziberplaza, sarea, Internet. Lehen pausoak ematea kosta bazo ere, euskara jalgi da sarera, eta gero eta presentzia handiago du Interneten.

Aurrerapauso horien adierazle da Eusko Ikaskuntzak Euskararen Nazioarteko Egunaren harira bultzatutako iniziatiba. «Mundu osoan ikusgarritasuna» izango duen egitasmo bat egin nahi izan dute, eta, horretarako, Google erakundeari eskaera bat egin diote. Euskal *doodle* baten bitartez [hala deitzen da bilatzailearen ikurra], euskara azaroaren 3an, bere egunean, mundu osoan ikusgai egotea da helburua, euskal hizkuntzaren «unibertsaltasuna» Internet bidez lau haizeetara aldarrikatzeko.

«Internetek eta teknologia berriek duten indarrak» jabetu da Eusko Ikaskuntza, Leire Gazeo



goko lanaren eta komunitate oso baten ahaleginaren ondorioz. Izan ere, komunitateak, erabiltzaileek, ezinbesteko garrantzia eduki dute hori lortzeko. Haiak hasi zuten prozesua *We would like to translate Twitter to Basque* (Twitter euskarara itzuli nahi dugu) mezua idatziz, eta haiek burutu zuten, itzulpena musu truk eta talde lanean eginda. Lau hilabete geroago, 5.000 erabiltzaile baino gehiagok darabilte sare soziala euskaraz. Interneteko tresna nagusien artean euskaratu den azkenekoa izan da. Euskaraz erabili daitezke, besteak beste, Wikipediak, Google, Facebook, YouTube, WordPress eta Tuenti.

‘eus’ domeinuaren bila

Euskal hiztun asko Interneten erdaraz jardun arren, aurrera egingen ari da euskara. Dena den, euskarak ez du domeinu propiorik, euskal hizkuntzarekin edo Euskal Herriarekin identifikatzen duen identifikatzailearik. Hutsune hori betetzeko eratu zen PuntuEus elkarteak, *.eus* domeinua sortzeko asmoarekin. Gainditu dituzte lehenengo oztupoak. Domeinua edukitzeko eskaera onartu du ICANN sareko identifikatzaileak arautzeko ardura duen erakundeak. Hori bai, beste 1.900 bat eskaerekin batera. Besteen artean daude Galiziako (*.gal*), Eskoziako (*.scot*) eta Britainiako (*.bhz*) eskaerak, adibidez.

Helburua betetzeko, ez lirateke

domeinu propioa luketen lehen estatuturik gabeko nazioak, Herrialde Katalanek jadanik *.cat* identifikatzailea baitute. Onartutako eskaera guztiak aztertzen ari da orain ICANN. Erabakia urte amaierarako hartzekoak ziren hasiera batean, baina espero baino eskaera gehiago jaso dituzte, eta, horrenbestez, atzeratu egin da prozesua.

Euskararen sareratzearen adibideak dira aipaturikoak, baina badira beste hainbat ekinbide. Facebooken, esaterako, Euskararen Nazioarteko Eguna harira, *Euskaldunok Euskaraz* orrialdea 10.000 lagunengana iristeko egitasmoa bultzatu dute. Helburutik gertu daude oraingoz. Horrez gain, bada euskara hutsean idatzitako blog sare zabal bat, jokoak, webgune onenentzako sariak eta beste hainbat adibide.

Etengabean gora doa euskara, gero eta erabiltzaile gehiago daude, eta gero eta gehiagok darabilte euskara Interneten komunikatzeko. Jalgi da jada euskara sarrera. Bertan luzaroan geratzeko, gainera.

Baina badira oraindik Interneten eskuragarri ez dauden baliabideak. Euskaltzaindiak berriki atera zuen hiztegi berria, paper hutsean. Erabaki horrek zalaparta sortu zuen, eta kritika ugari jaso zituen akademiak. Hala eta guztiz ere, oraingoz, euskarri bakarrean mantenduko dutela adierazi du Euskaltzaindiak.

Irudia Xare



Teknologia berriak eta euskara, batera

Euskara eta teknologia berriak bidelagun izan daitezkeen erakusle garbia izan da aurreko aste-an Donostian, Kurasaalean, eginiko Xare azoka. Mahai inguruak, hitzaldiak eta erakusmahaiak izan ziren bi egunez. Gazteak izan ziren jardunald-

dietako protagonistak, eta Interneten ere euskaraz egiteak duen garrantzia izan zen mezu nagusia. Euskarazko hedabideek sarean dituzten erronkak eta bilatu behar dituzten formula berriak ere hizpide izan ziren Xaren. JON URBE / ARGAZKI PRESS

munduro euskaraz

Euskararen geografik,
Giza geografik,
Ez du mugarik.
Erabilerak ematen dio bizia eta indarra.

Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna
3 de diciembre, Día Internacional del Euskera

MUNDURO EUSKARAZ
alerno al mundo

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


KULTURA SAILA
Departamento de Cultura
Departamento de Cultura

**VITORIA
GASTEIZ**

**ELEBIDUNA
BAZARA**

ZURE BIZITZA
HOBETUKO DUZU,
BAITA BESTEONA ERE


ELEBIDUNA NAIZ
**ABERATSA
NAIZ**



Patxi Martinez de Marigorta

«Jakitetik erabiltzera dagoen jauziak kezkatzen gaitu»

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzan aritu ondoren, buru-belarri ari da Patxi Martinez de Marigorta Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuko ardura teknikoan. Arabako hiriburuak Euskararen Nazioarteko Egunean egingo dituen ekitaldiez hitz egin du, baita udala euskara sustatzeko egiten ari den lanaz ere.



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuko arduradun teknikoak da Patxi Martinez de Marigorta, eta euskararen erabilera hiriburuan suspertzearen beharraz jardun da.

G Zer esan nahi du zuretzat Euskararen Nazioarteko Eguna?

E Egun berezia da: urte osoan euskara sustatzeko egiten dugunaren gainean gogoeta egiteko, ondo egindakoak ospatzeko eta, gerora begira, hainbat hobekuntza prestatu ahal izateko. Oso egun berezia izaten da, ospakizun bezala. Alde horretatik, oso egun polita da.

G Ekitaldiaren bat egingo al du Gasteizko Udalak Euskararen Egunaren harira?

E Hainbat erakunderekin batera antolatuko dituzte ekitaldiak Gasteizko Udalak. Euskararen Eguna da, baina Euskararen Astea izan liteke. Eguna nagusia, jakina, abenduaren 3a da. Baina, esaterako, gaur [asteazkenean] Bai Euskarari ziurtagiriak antolatu du lehenengo ekitaldia, Artium museoan, foru aldundiarekin eta udalaren laguntzarekin: Mintzodromoaren bigarren aldia. Gure aurreikuspenen arabera, 450 bat

ikasle ziren parte hartzeak. Hori lehenengo ekitaldia izan zen. Azaroaren 30ean, bi urtean behin foru aldundiak antolatzen dituen Lazarraga sariak banatuko dira, merkataritzaren esparruan. Abenduaren 3an bertan, udalarekin emango dira Vitoria-Gasteiz Itzulpen Sariak. Gazte eta haur literaturen esparruan euskarara egindako itzulpenik onenak saritzeko. Haur saileko saria Patxi Zubizarretak irabazi du, eta gazte literaturaren saria, Usoa Wyssenbachek. Eguna horretan bertan *Bodologoak* antzerki emankizuna dago.

G Euskararen Egunaren ondoren ere antolatu dituzte ekitaldiak.

E Abenduaren 5ean, Jimmy Jazz aretoan musika emanaldia egongo da, hirugarren *Gaztehitz* kontzertua: Ze Esatek, Skakeitan eta On taldeak ariko dira. Horietako bik lan berria aurkeztuko dute.

G Zein egoeratan dago euskara Gasteizen?

E Jakintza aldetik, ukalezina da aurrerakada nabarmena izan dela azkeneko urteotan. Erroldako datuen arabera, %25 dira euskaldunak, eta beste hainbeste elebidun pasiboak. Hau da, ulertu, ulertzen dute, baina hitz egitea nekeza egiten zaie. Gasteizko Udalak beste hainbat erakunde duten kezka bera du: jakitetik erabiltzera dagoen jauzia. Hori dela eta, jauzi hori nola eman da udalak onartzen dituen planen helburu nagusia. Euskara bultzatzeko eta sustatzeko hainbat plan bideratzen ditugu. Udalak, batetik, barrurako erabilera plana dauka, bost urtean behin berritzen dena; eta, bestetik, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, udalerrian eragina duena. Lan egiteko ildo nagusia da jauzi hori ematen nola lagundu.

G Zer pauso ematen ari da egun udala?

E Oso garai garrantzitsuan gaudela. Bi planen azken urtea baita aurten. Ebaluazioarekin ari gara; hainbat emaitza aterako dira, eta, ebaluazio horretatik abiatuta, plan berri bat egin beharko da hurrengo bost urteetarako. Ebaluazioetan, normalean, herritarren parte hartzea bideratzen da.

G Krisi ekonomikoaren eta murrizketen egoera honetan, euskarak erakunde publikoentzako lehentasun izan behar al du aurrerantzean ere?

E Nire iritziz, bai. Egia da krisi gorrian gaudela, baina, hala ere, gauzak era batera edo bestera eginda, edo bestelako baliabideak erabilia, ezin dira gelditu abian diren proiektuak.

G Biharkoa egunerokotasunaren aldarrial da?

E Euskararen Eguna dela eta, pentsatzen dut zinegotziek adie-

razpen instituzionala egingo dutela. Udal talde politikoek aurrera begira hainbat konpromiso hartzeko aukera polita da. Orain arte, adierazpen hori talde politikoan artean adostu dute, eta denek irakurri dute sari banaketak egiteko ekitaldian. Orain, udal taldeburuek badute adierazpenaren zirriborro bat; lantzen ari dira. Espero dut aurten ere denak ados egotea adierazpen horrekin.

G Euskarari iritsiko al da horrelako egunak ospatu behar izateara?

E Oraindik ere hainbat urtean ospatu beharko dugula uste dut. Egoera normalduta ere, halako egun ludiko bat izatea polita litzake, zalantzarik gabe. Baina, tira, egia da oraindik ere hainbat aldiz gogorazari beharko dugula egiteko eta hobetzeko daukagun guztia; konpromisoak hartu beharko direla euskararen egungo egoera hobetzeko.

OLANO
Gizonezko moda
Nagusia, 12
tel. faxa 943 427 154
20003 DONOSTIA

GOZOTEGIA OIARTZUN
Bonboneria
IZOZTEGI-DENDA berria
kanto berean
Kale Nagusia, 1
Igutea, 2
Tel.: 943-42 62 09
Alde Zaharra DONOSTIA

Bizi Euskaraz !!
Petritegi
www.petritegi.com

ZUMARDI
taberna
ZUMARDI PASEALEKUA 22, HERRERA

EKINTZA
«HEZKUNTZA herrian sustraitua, unibertsora irekia, ASKATASUNA DA»
Tontorgoxo, 18 - DONOSTIA
© 943 31 69 77
www.ekintza.org

08 Euskararen Nazioarteko Eguna Ekitaldiak



Gasteizen mintzodromoa antolatu zuten, Euskararen Nazioarteko Egunaren atariko gisa. RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

EN Eren VII.
Sariketako sari
banaketa, bihar

➔ Eusko Ikaskuntzak, urtero legez, ENE sariak banatuko ditu bihar, Euskararen Nazioarteko Egunean.

Honako elkarte hauek dira aurtengo hautagaiak: Bahía Blancako Union Vasca elkarte (Argentina), Bartzelonako Euskal Etxea (Herrialde Katalanak), Berlingo Euskal Etxea (Alemania), Bordeleko Euskal Etxea (Frantzia), Brnoko Masaryk Unibertsitatea (Txekiar Errepublikak), Bruselako Euskal Etxea (Belgika), Colectividad Vasca de Chile (Txile), Euskaltzaleak (Argentina), Gure Etxea Tandil (Argentina), La Platako Unibertsitatea (Argentina), London Basque Society (Erresuma Batua), NABO (Amerikako Estatu Batuak) eta Saltoko Euskaldunak (Uruguai).

Ekitaldi uholdea

Euskaraz jantziko dira Euskal Herriko hiri eta herriak, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira astebururako eta biharko antolatu diren ehunka ekitaldietan.

Mintzodromoak, hitzaldiak, mahai inguruak, antzerkiak... Euskaraz bizi nahi duenak ez du aitzakiarik izan asteburuan, eta ez du aitzakiarik izango ez gaur, ezta bihar ere. Euskararen Nazioarteko Egunaren harira ekitaldi

andana antolatu dute Euskal Herriko udalek eta elkarteek. Euskaraz blai egin dute egunero erabileraren aldarri behar duen egunarekin. Donostian, esaterako, ehundik gora ekitaldi prestatu dituzte. Proposamen ugari, baina helburu berberekin, azken finean: euskal hizkun-

tzarekiko engaiamendua adieraztea eta aldarrikatzea.

Azaroaren 3a astelehenarekin izanik, asteburua aprobetxatu dute gehienek, eta asteburura aurreratu da ospakizuna. Hala, giroa berotzen hasi ziren atzo zazpi lurraldeetako euskaltzaleak. Bertso afariak, musika, asko-

tariko tailerrak... Dena euskaraz bizi nahi dutenen gozagarri.

Kanpainen elikagai ere bada biharkoa. Ospakizunaren harira, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Euskararen aurpegiak* izeneko kanpaina jarri zuen abian azaroaren 24an. Telebistaz, irratiz eta Internetez oihartzun zabala izan du egunotan.

Adierazpen instituzionaletarako tartea ere egongo da bihar. Eusko Legebiltzarrak Euskararen Legearen 30. urteurrena

gogoraraziko du legebiltzarreko Tomas Moro aretoan. Bilboko Udalak harrera ofiziala egingo du 12:00etan, eta Gasteizko Udalak adierazpen instituzionala egingo du, urtero bezala.

Mintzodromoek, aurrera

Urterik urtera protagonismo handiagoa hartzen ari dira mintzodromo edo berbodromoak. Mahai baten inguruan euskaraz mintzatzen diren herritarrek bildu eta berriketan jartzea da egitasmoaren helburua. Biharko egunaren harira, asteazkenean egin zuten lehenengoa, Gasteizen. Bigarren Hezkuntzako ikasleek parte hartu zuten Artium museoan antolatutako ekitaldian.

Bihar, hainbat lekutan antolatuko dituzte mintzodromoak: Donostian, Irunen, Getxon, Erandion... Pertsona ezagunek eta herritarrek batera parte hartuko dute, oro har, nahiz eta ekitaldi bakoitzaren egitura desberdina izango den. Erandioko berbodromoan, esaterako, Urko Aristi aurkezlea ariko da dinamizatzaile lanetan, eta Donostian, esparru anitzetako pertsonaia ezagunak gazteekin nahasiko dira *Gaztezu- lo-k* antolatutako ekitaldian.

Diasporak ere bat egin du Euskararen Nazioarteko Egunarekin. Izan ere, euskal hizkuntzak ez du mugarik. Euskal Herritik kanpo ere askotariko egitaraua prestatu dute. Argentinan, adibidez, elkarte anitzek deitu dute euskararen alde elkartzera. Buenos Airesko hainbat gunetan, General Rodriguezen, Bahía Blancan, La Platan eta Cordoban elkartzeko dira besteak beste. Bideo emanaldiak, antzerkiak, abesbatzak eta beste egongo dira.

Euskararen eguna ospatzeko
Abenduaren 1ean, 15:30ean
denok Gaztelekura!

Escuela Oficial de Idiomas de San Sebastián Donostiako Hizkuntza Eskola Ofiziala

- ✓ Alemaniera
- ✓ Euskara
- ✓ Frantsesa
- ✓ Ingelesa
- ✓ Espainiera (atzerriarrentzat)

Zamaria, 24 • 20013 Donostia tel. 943 28 63 11- 943 28 63 12 faxa 943 28 38 80
info@eoidonostia.org • www.eoidonostia.org

NIDO
Taberna

Jose Elosegi hiribidea 130 • Tel.: 943 392 435

2 urteko 18 sartera bitarteko kristau hezkuntza-proiektua

HH LH DBH BTX

0 eredu • Ingelesa 4 urteko aurrera

Pedagogi berrikuntza-programak • Zerbitzu-estaltza zahala

Jangela: eskolako sabaia propioa

Garratza publikoa: Iruroren, Naba, Nereko antzerkiak

La Salle

Lokala azkoa www.lasallebasque.com 943 454400 • post@lasallebasque.com

MARCOS
okindegia

Benetako antzinako ogia

Ubarburu pasealekua, 113 • 27. Industrialdea • ASTIGARRAGA
Tel.: 943-45 09 66 • Faxa: 943-11 67 28